

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza
Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)**

Etxe Maitia Udal Egoitzako langile lan-kontratudun finko izendatzea 4.17 kodea duen Erizaintzako Laguntzailearen lanpostuan, %67,57ko lanaldian, lehiaketa modalitatean egonkortzeko EPE-tik eratorritako hautaketa-prozesuaren ondoren.

«Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzako Udal Zentroa» erakunde autonomoaren presidenteak 358/2025 zenbakia eta 2025eko irailaren 5eko data dituen Ebazpena eman du, non honako hau xedatu baitu:

Lehena: Baimena ematea Luis Angel Melgar Raposo (NANa: XX2212XX-X) langile lan-kontratudun finko gisa kontratatzeko, Erizaintzako Laguntzailearen lanbide-kategorian (4.17 kodea), txanda irekian eta lehiaketa sistemaren bitartez «Etxe Maitia» Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzako Udal Zentroa» erakunde autonomoan aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu-eskaintza publikoari dagozkion honako postu hauek betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren barruan: erizaintzako laguntzaile postuari dagozkion bost (5) plaza (C2 azpitaldea, 17 ordainsari-maila eta 4.15, 4.16, 4.17, 4.18 eta 4.19 kodeak). Izan ere, Luis Angel Melgar Raposo hautagaiak deialdian eskatutako baldintzak betetzen ditu, eta bera da hurrengoa izendapenearako zerrendaren hurrenkeran, Epaimahai Kalifikatzailearen behin betiko kalifikazioen arabera (espediente honi erantsita doaz.

Bigarrena: Kontratatzeko baimen honek ondorioak izango ditu 2025ko irailaren 9tik aurrera.

Hirugarrena: Ebazpen hau jakinaraztea aukeratutako hautagaiari, legez dagozkion errekurtsioak adierazita; eta jakinaraztea, era berean, lan-kontratua formalizatu beharko duela hilabeteko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, hautagaiari bere datu pertsonalen tratamenduaren eta konfidentzialtasun-konpromisoaren berri emango zaio, Erakunde Autonomoarekiko harremanari dagokionez.

Laugarrena: Erakundearen administrazio-zerbitzuari jakinaraztea lan-kontratu hau sinatu dela, dagozkion ondorioetarako.

Bosgarrena: Kontratua sinatu ondoren, dagokion enplegu-bulego publikoari jakinaraztea, sinatu osteko hamar eguneko epean.

Seigarrena: Langileen legezko ordezkariari informazioa ematea, sinatutako kontratuen oinarritzko kopiaekin batera.

Zazpigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, webgunean eta iragarki-taulan argitara dadila agintzea, oinarri arautzaileekin bat etorruta.

Basaurin, 2025eko irailaren 8an.—Presidenteak, María Larrinaga